

ELKARTE

INFORMAZIO
ALDIZKARIA

35

UZTAILA
2 0 0 9

Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea


GOBERNU BERRIA, ERRONKA BERRIAK

AENA BIDAIAKO LAGUNTZA

DISEINATZAILE DISKRIMINATZAILE



ESPAÑA
ESPAÑA



FRANKEO
ITUNDUTAKOIA
FRANQUEO
CONCERTADO

Aut. Zbk.
Aut. n.º 37/100

Gozoratze...

ARABA

Beato Tomás de Zumárraga, 96-98 behea
Tel. eta Faxe: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealeku 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxe: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxe: 94 405 36 69
48014 BILBO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

GIPUZKOA

- **AGAEB**
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarte.
- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandako Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **ANAIIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetetasuna.
- **ASPARGUI**
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **Debabarreneko Gutxitu Fisikoak.**
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarte.

BIZKAIA

- **A.C.C.U.**
Crohn-en eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte.
- **A.D.E.L.E.S.**
Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte.
- **ADEMBI**
Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte.
- **ALCER**
Giltxurruneke gaixotasunen aurkako elkarte.
- **ASEBI**
Asociación bizkaia elkarte espiná bífida e hidrocefalia.
- **Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko gurasoen bizkaiko elkarte.**
- **Lea-Artibaiko ahalurri fisikoen elkarte.**
- **AHEVA**
Eusko hemofiliaren elkarte.
- **ARGIA**
Ostomizatuen eta inkontinenteen euskal elkarte.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte.
- **AUXILIA**
- **A.V.A.H.**
Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarte.
- **B.E.N.E.**
Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte.
- **BIDARI**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko ermuko elkarte.
- **BIZKEL**
Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak.

- **CODISFIBA**
Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko elkarte.
- **FRATER**
Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte.
- **L.E.V.A.R.**
Arthritis reumatoidea duten pertsonekiko elkarte.
- **EFELA**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko arratiko elkarte.

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonekiko Elkarte.

Eusko Jaurlaritzako
Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantza Sailak
diruz, lagundutako
argitalpena.

Elkarte horiekin
harremanetan jarri nahi
baduzu, jo ezazu zure
probintziako
koordinadorara

a u r k i b i d e a

O r o k o r r a

1. Batzar Nagusia 4
2. Diseinuak egiten dituenak diskriminatzen du 5
3. Eusko Jaurlaritza egitura 9
4. AENA 12

A r a b a

1. Hiri Antolamendurako Plan Nagusia 15
2. Bono-Taxi Programa 16
3. Udaleko Gizarte Kontseilua 17
4. Gizarte Lanari Buruzko Estatuko Kongresua 18
5. Abetxuko 20
6. Irisgarritasun Plana 21
7. Diskriminazioa Arabako Foru Aldundiko Zerbitzu Batean 22
8. Gidaliburu Baliagarriak: Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua 23
9. Hirigintza 23

B i z k a i a

1. Fekooreko II. Jardunaldia 25
2. Fekoor-ek kolektiboaren proposamenak aldarrikatu ditu Bizkaian bitzitza independentea izateko eskubidea sustatzeko, Foru Aldundiak antolatutako Gizarte-Ekintzako Topaketetan 27
3. Fekoor-ek arkitektura-oztopoak kentzeko lege-ekimenak azaltzen ditu Legelarien Euskal Kontseiluaren jardunaldietan 30

G i p u z k o a

1. Emakumezko parlamentari tibetarraren bisita 32
2. Gizarte Zerbitzuen Word Cafea 32
3. Aparkaleku-txartelak faltsutzea 33
4. Ezinduen Kontseilua: Mendekotasun Legea 34
5. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua 34

BATZAR NAGUSIA

ELKARTEAN erakundeak apirilaren hogeita hiruan egin zuen **BATZAR NAGUSIA** Bizkaiko egoitzaren instalazioetan, hau da, fekoor-en.

Erakundearen estatutuetan xedutakoari jarraiki, Elkarteak 2009ko **BATZAR NAGUSIA** antolatu zuen. Batzarra fekooreko batzar-gelan izan zen; hau da, Blas Otero 63, behea, Bilbon.

Lehenik eta behin, aurreko bileraren AKTA irakurri eta onartu zuten.

Ondoren, 2008ko ekitaldiko **JARDUEREN MEMORIAK** eta **BALANTZE EKONOMIKOAK** aurkeztuziren. Hain zuzen, erakundeak Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Gaietako Sailarekin adostutako lankidetzaz **HITZARMENA**ri buruzkoak eta 2008an Elkarteak parte hartu zuen hiru diru-laguntza publikoei buruzkoak dira agiri horiek:

- Prebentzio, Errehabilitazio eta Laguntza Programetarako diru-laguntza.
- Gizarte Ekimen Esperimentaletarako diru-laguntza.
- Ikastaroak eta jardunaldiak antolatzeko diru-laguntza. Jarduera horien berri eman zen, bertaritutakoei kontuen egoerari buruzko informazioa banatu zitzaizen, eta onartu egin kontu horiek.

Gai-zerrendako hirugarren puntuak 2009rako programatutako jarduerak jasotzen zituen. 2009ko jarduera-proiektua aurkeztu zen, eta erakundearen funtzionamendua eta jarduerak aztertu ziren (Eusko Jaurlaritzarekin adostutako 2009ko **HITZARMENA**). 2009rako eskatutako diru-laguntzen eskaerak ere aurkeztu ziren; diru-laguntza horiek, berriz ere, honako hauek dira:



- *Prebentzio, Errehabilitazio eta Laguntza Programetarako diru-laguntza*: besteak beste, ziurtatzen digu **ELKARTE** aldizkaria argitaratzea, —hiru hilean behin kaleratzen da eta 13.000 pertsonak irakurtzen dute euskal erkidegoan—, Aholkularitza Juridikoa eta prestakuntza-programa.
- *Gizarte Ekimen Esperimentaletarako diru-laguntza*: aurten, dagoeneko prestatuta dagoen Baliabideen Gida elektronikoa paperean argitaratzea eskatu da.
- *Ikastaroak eta jardunaldiak antolatzeko diru-laguntza*: hausnarketa-marko bat sortzeko ikastaroa antolatzeko ziurtatzen digu; ikastaro horrek gizarte-gaiei buruzko alderdiak landuko ditu eta minusbaliotasunak dituzten pertsonen zuzenduta dago.

Halaber, erakundeari buruzko alderdiak ere mintzagai izan ziren. Aurreko diruzainak kargua utzi zuenez, Arabako lurralde historikoko beste

pertsona bat izendatu zen *-orain kargu horren ardura hartu behar duen lurraldea-* izan ere, kargu berriak datorren urtean hautatzea aurreikusita dago, eta bitartean postu hori beteko du. Horrezaz gain, ekainaren 1etik aurrera gestoriaz aldatzea adostu zen, eta aurrerantzean Arabako aholkularitza bat arduratuko da kontabilitate-eta lan-arloko laguntza emateaz. Halaber, Bizkaia aurkeztutako Giza Baliabideen Plana ere onartu zen. Plan horrek Hirugarren Sektoroko lana erraztea eta bizkortzea ahalbidetuko



duela uste dugu. Azkenik, galderen eta eskaeren unea iritsi zen eta, berriro ere, lurraldeek dituzten kezak eta eskaerak ezagutu genituen. Hainbat gai landu ziren: ELKARTE aldizkariari buruzko alderdiak; Mendekotasunaren inguruko prestazioen zenbatekoak; zenbait lonjen kasuan, atarrietatik barrera sartzeko sortzen diren gatazkak eta arazoak; desjabetze-prozedurak; bazkide-kuotak; obrak; erreformak egiteko diru-laguntzak; etab.

Beste behin, aparkatzeko txartelak eztabaida handia eragin zuen. Gure erkidegoan indarrean dauden txartel horiek mugitzeko urritasunak dituzten pertsonak erabiltzen dituzte eta Europan ere baliagarriak dira. Gure ustez, ELKARTEAN konfederazioan ezinbestean landu behar ditugu lurraldeen artean gaiari buruz dauden desberdintasunak. Bestalde, txartela behar bezala ez erabiltzeaz eta hartu behar ez diren plazak okupatzeaz ere hitz egin behar dugu. Halaber, honako gai hauek ere jorratuko dira: hiriarteko garraioa, Osakidetzaren egoera mugikortasun urriko pertsonen dagokionez, irisgarritasuna oro har, eta gure erkidegoan indarrean dauden legezko testu berriak.

DISEINUAUAK EGITEN DITUENAK DISKRIMINATZEN DU

Hiriak bizitzeko eta gozatzeko dira. Baina badago herritarren zati bat sufritzen dituela. Ezintasunak dituzten pertsonak, gainerako herritarrek ez bezala, oztopoak eta trabak aurkitzen dituzte egunero funtsezko eginkizunak burutzean, hala nola, erosketak egitean, gestioak egitean, haien buruak trebatzean, lan egitean, garraio-sare publikoak eta pribatuak erabiltzean (esaterako, autoa, autobusa, trena, taxia), edo aisialdiaz gozatzeko. Mugikortasun-oztopoek pertsona horien

oinarrizko askatasunak murrizten dute, esaterako, lanerako eskubidea, kulturarako eskubidea, politikan eta gizartean parte hartzeko eskubidea, olgeta- eta kirol-jarduerak egiteko eskubidea eta informazioa jasotzeko eskubidea. Irisgarritasuna gizartean biziki parte hartzeko giltzetako bat da, baina baita oinarrizko askatasunak garatzeko, bizitza autonomoa izateko eskubidea bermatzeko eta pertsona oroaren bizi-kalitatea ziurtatzeko ere. Irisgarritasun ezak

ingurune mugatuak sortzen ditu eta, hain zuzen, gizakiok dugun gauzarik preziatuena bahitzen digu: aukerame-
na, gure bidea aukeratzeko gaitasuna
eta gure bizitza nahi bezala bizitzea
erabakitzeo gaitasuna.

Euskal Herrian irisgarritasunari buruzko araudia jasotzen dute Irisgarritasuna Sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren 1997ko Legeak eta 68/2000 Dekretuak hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemak irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak. 126/2001 Dekretuak arautzen ditu garraioaren irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak.

Euskal Herrian irisgarritasunari buruzko legea onartu zenetik hamarkada bat baino gehiago iragan bada ere, gaur egun oraindik zerbitzu berriak ematen dira eta azpiegiturak zabaltzen dira irisgarritasunaren alorrean hutsuneak dituztenak edo zuzenean irisgarritasunari buruzko legedia betetzen ez dituztenak. Lege-tresna ona da, baina eraginkorra izateko premia handiz behar ditu kontrolerako eta zigorrek ezartzeko bitartekoak, praktikan araudi horrek eragin gutxi izan duelako.

Egia da aurrerapenak egin direla, baina irisgarritasuna bigarren mailako gaia izaten jarraitzen du gure hirietako hirigintza-garapenerako planetan. Hori dela eta, politikaren eta instituzioen arduradunek "irisgarritasun unibertsalari" eta "guztiontzako diseinuari" lehentasuna eman behar diete. Kontzeptu bi horiek ezinbestekoak dira esparru sozial integratzaileak eraikitzeo, mugikortasun urriko pertsonak esparru horietan ahalik eta autonomia handienaz molda daitezten. Nahiz eta legeetan kontzeptu biak ondo zehaztuta dauden, zehaztasun eta zorroztasun horiek ez dira oraindik gizartearen eta politikaren errealitatera hedatu.

Gaur egun, irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua dira premia handien duten gaiak bi eskubide bermatzeko: aukera-berdintasuna izateko eskubidea eta ezintasunak

dituzten pertsonak diskriminazioa ez pairatzeko eskubidea.

Erreserbatutako plazak

Irisgarritasun ezaren eta "mugikortasunaren katea" haustearen ondorioz, Euskadin, gaur egun oraindik, ezintasun fisikoa dugunok norberaren autoa erabiltzea dugu garraio-aukera hobere-
rena. Hala ere, ez da batere erraza gure hirietan autoan ibiltzea. Ezintasunak ditugun pertsonak ezin dugu edozein lekutan aparkatu. Aparkalekuek berezko baldintzak bete behar dituzte, gurpil-aukiak edo bestelako laguntza teknikoak ateratzeko eta espaloira iristeko bidean oztoporik aurkitu gabe.

Erreserbatutako dagoen plaza iruzurrez okupatzen bada, gure taldearen mugikortasunerako eskubidea murrizten da eta gure eskubiderik oinarrizkoenak urratzen dira.

Ziurtasun osoz badakigu emandako txartelak ez direla behar bezala erabiltzen. Txartelak eskatzen dira ezintasunen bat duten senideentzat (esaterako, adin nagusiko aitarentzat edo amarentzat), eta txartela jaso ondoren gainerako senideek erabiltzen dute aparkatzeko, nahiz eta etxebizitza bera ez izan edo herri desberdinetan bizi. Badaude beste familia batzuk, ordea, txartelak eskatzen dituztenak ezintasunak dituzten seme-alabak eramateko, baina gero erabiltzen dituzte aparkatzean



arazorik ez izateko. Behar ez bezalako erabilera hori da agian zeharo gaitzetsi behar dena, senide horiek kontzientziatuak egon beharko lirateke-eta ezintasunak dituzten gaine-rako pertsonak kaltetzen ari direla.

Txartel faltsuak bereizi gabe erabiltzea ere ohikoa da eta horren ondorioz, erreserbatutako aparkaleku baino baimen gehiago daude. Gaur egun erraz samarra da koloreetako fotokopiak egitea, agiria eskaneatzea edo agiria interneten bidez lortzea. Ildo horretan, komeniko litzateke txartelei kontrol-sistema bat ezartzea egiaztatzeko agiriak egiazkoak diren edo ez, bai eta titularrak zeintzuk diren ere.

Udalak ematen ditu aparkatzeko txartelak ezintasunak dituzten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuak uzteko, eta txartel horiek Autonomia Erkidegoko herri guztietan erabil daitezke. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak onartu zuen urriaren 17ko 236/1989 Dekretuak arautzen ditu txartel horiek eskatzeko eta erabiltzeko baldintzak. Bestalde, zentzuzkoagoa izango litzateke Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraio Sailak ahalmen hori izango balu edo, gutxienez, partekatuko balu, gure taldeari eragindako gaiak jorratu behar diren zeharkakotasuna ikusirik.

256/2000 Dekretuaren helburua da ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartela arautzea eta Europako Batasuneko eredu estandarri egokitzeko baldintzak zehaztea, 1998an Europako Kontseiluak emandako gomendioari jarraiki. Dekretua indarrean sartu zenetik, Euskal Herriko udalek emandako txartelak Erkidego osoan erabiltzea onartzen da, hau da, Europar Batasuneko estatu kide guztietan erabil daiteke, antolamenduaren eta ibilgailuen zirkulazioaren alorretan Erkidegoko udal bakoitzak ezarritako baldintzen arabera.

Ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela norberarena da eta ezin zaio beste inori utzi. Halaber, titularrak ibilgailuan eramaten denean edo ibilgailua pertsona ezinduek darama-

nean bakarrik erabili ahal izango da. Hori oso garrantzitsua da, arau hori urratzeak txartelarekin iruzur egitea dakarrelako.

Beharrezkoa da erabilera-irizpide berriak eta kontrolerako bitartekoak jartzea, horien bidez diru-zigorak ezartzeko edo txartela aldi baterako edo betiko kentzeko, baldin eta iruzurra behin eta berriz egiten bada.

Gaur egun «arkitektura-oztopoak kentzeko araudiak» aurreikusten du 40 plazako edo zatikiko gutxienez plaza bat egongo dela erreserbatuta ezinduek garraiatzen dituzten ibilgailuentzat. Baina plaza-kopuru hori ez da nahikoa, kontuan hartzen badugu ezinduek garraiatzeko ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela eskatzen duten pertsonen portzentajea gero eta handiagoa dela, talde gehiagok txartela eskatzeko aukera dutelako.

Hiriarteko garraioa

AUTOBUSAK

Euskadin hiriarteko autobusak erabiltzea oztopoz beteriko aukera da oraindik. Garraio-enpresa publikoek zein pribatuek ez dute oraindik haien ibilgailuak egokitu; hori dela eta, bidaiatzeko aukerak murrizten dira norako eta ordutegi jakin batzuetara. Hori horrela, beste behin diskriminazio-seinale garbia da.

Oro har, esan daiteke Euskadin hiriarteko garraioa ez dagoela egokituta



ezinduek beren kabuz erabili ahal izateko. Azken urteotan irisgarritasunaren alorrean hiriko autobusek asko hobetu duten arren, hiriarteko autobusen irisgarritasuna konpondu gabe ko arazoa da oraindik. Gutxi batzuek arrapalak edo plataformak dituzte eta, gainera, horien artean batzuek sistema ez oso praktikoak dituzte, hain zuzen, zerbitzuaren garapen normalizatuarekin bat ez datozenak. Erabiltzen diren plataforma batzuek hogeita minutuko atzerapena eragiten dute gurrpil-aulkian garraiatzen den pertsona bakoitzeko. Egoera kafkiar horrek atzerapenaren errua erabiltzaileari egotzen dio eta, ondorioz, edonork gogoia galtzen du garraio hori erabiltzeko.

Unitateen irisgarritasun-arazoez gain, geltokien diseinuak ere hainbat gabezia ditu; hala nola, espaloien zoladurak altuera eskasa du, ondorioz, ezin dira aprobetxatu autobusetako zoru baxuak dituen abantailak; zenbait geltoki bihurgunean daude ezkerretara; markesinetako itxaroteko guneak ez dira iristeko modukoak, besteak beste.

Garraio-enpresa batzuek autobusak arrapalarekin dituzte, baina arrapala eskuzko gurpil-aulkiak daramaten erabiltzaileek bakarrik erabili dezakete, autobus barruko eserleku batean jarrita.

Euskadin lan egiten duen autobus-enpresa bakar batek ere ez du bere web-orrian informazioa ematen edozein autobus-lineatan ezinduek bidaiatzeko dituzten aukerei buruz.

Ezindua gurpil-aulkitik mugitu ezin bada edo gurpil-aulki elektrikoa



erabiltzen bada, nahitaezkoa da garraio-enpresari horren berri ematea ezindua bidaiatzeko duen unea baino egun batzuk lehenago. Gurpil-aulkientzako ainguraketa dituzten autobusak gutxi dira; beraz, bidaiatzeko norakoak eta orduak oso mugatuak dira. Azken finean, diskriminazioaren seinale onartezina da, hain zuzen, zerbitzua erabiltzen duten pertsonak zigortzen dituen, enpresari konpontzea dagokion arazo batengatik; izan ere, enpresak ez du irisgarritasunari buruzko araudia betetzen.

TREN-SAREA

Tren-sareari dagokionez (Renfe, FEVE eta Euskotren), oraindik ahalegin nabarmena egin behar da geltokiak eta trenak egokitze aldera, irisgarritasunari buruzko araudiak xedatzen dituen baldintzen arabera. Bagoien eta nasen arteko aldea benetan amildegiak dira, eta horrek garraio-mota hori erabiltzea eragozten die gurpil-aulkietan edo makuluekin mugitzen diren pertsonari eta adin mugasikoei.

Uda ondoren, Renfe Euskal Herriko aldiriko trenak berritzeari ekingo dio; hain zuzen, Gipuzkoan hasiko da. Gaur egun, Renfeko aldiriko trenak baztertzin dira balio-bizitzaren muga gainditzen dutenean, hau da, 20 urtez zerbitzuan egon ondoren, eta horien ordez "Civia" trenak jarriko dituzte. Tren horiek azken aurrerabide teknologikoak dituzte irisgarritasunaren alorrean. "Civia" berriak nabarmen-tzen dira bagoien zoruak baxuagoak egin dituztelako, hau da, zoruak nasaren maila berean daude; beraz, mugikortasun urriko pertsonak errazago sar daitezke. Hasteko, tren berri horiek Gipuzkoan jarriko dituzte eta ondoren, Bizkaian darabilten aldiriko trenak ordezkatuko dituzte.

Orain dela zenbait urtetik tren berriak abian daude Madrilgo erkidegoan. Hala ere, erabili dituzten pertsonak egiaztatu dute, nahiz eta irisgarritasunaren alorrean bagoietan hobekuntzak egin diren, benetako arazoak sortzen direla nasak gaizki diseinatuta



daudelako eta, ondorioz, nasaren eta arrapalaren artean tarte handia dago edo nasa arrapala baino maila baxuagoan geratzen da. Kasu horietan dugun eskarmentua dela eta, zentzuzko

zalantza batzuk azaltzen zaizkigu. Unitate horiek benetan iristeko modukoak dira?, irisgarritasunaren katea kontuan izanda, ezinduen taldea aintzat hartuko da tren berrien irisgarritasuna egiaztatzeko?: Lotura: espazio publikoa garraiora sartzeko azpiegitura (geltokia); hau da, oinezkoentzako ibilbidea edo joan-etorria hiri-inguruneetatik garraio publikoa hartzeko geltokira iritsi arte. Lotura: geltokia ibilgailua geltokia; hau da, ibilgailura igotzea, ibilgailuan joan-etorria (garraio-baldintzak ibilgailuaren barruan) eta ibilgailutik ateratzea. Zoritxarrez uste dugu "Civia" trenak ez direla aldiriko eta hiriarteko garraioaren aukera izango, tren-geltokietan eta azpiegituretan irisgarritasun-erreformak burutzen ez diren bitartean.

Sozialistek eta profesional independenteek osatzen dute Eusko Jaurlaritza berria, eta gutxitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoa hartu dute

EAEko alderdi sozialistako aurpegi ezagunek eta hainbat alor profesionaletako independente entzutetsuek osatzen dute Patxi Lópezen gobernu berria.

Era horretan, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren honako hauek osatzen dute: Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia, Jose Manuel Salinero Feijooaren ardurapean; Koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, Virginia Múgica Conderen ardurapean; eta Komunikaziorako Idazkaritza Nagusia, Antonio Unzalu Garaigordobilen ardurapean.

Organo horri eginkizun garrantzitsuak dagozkio, hala nola, Jaurlaritzaren jarduerak koordinatzea; Legebiltzarrare-

kin, Arartekoarekin eta instituzioekin harremanetan jartzea eta informazioa trukatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioen arteko lankidetzak, koordinazioa, plangintza bateratua eta antolaketa bultzatzea eta garatzea; politika publikoen definizioa, koordinazio eta exekuzioan euskal gobernantza publikoa diseinatzea eta aplikatzea; autonomiaren garapenerako politika eta, xede horretarako, sailen jarduerak koordinatzea; Jaurlaritzaren Idazkaritza; Jaurlaritzaren bozeramailetza; eta Jaurlaritzaren politika honako gai hauetan: Europar Batasuna, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak, eta euskal gizataldeak eta euskal etxeak.



Sailak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

María Gemma Aránzazu Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua da. Sail horren barruan, Fernando Fantova Azcoaga Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren buru da eta Carlos Zapatero Berdonces, berriz, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuordetzarena.

Pablo Angulo Bárcena Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzaren arduraduna da eta Miren Amilibia Urcelay Herritarren Partaidetzarako eta Harreman Instituzionaletarako Sailburuordetzaren arduraduna.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari honako egiteko garrantzitsu hauek dagozkio: gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuak, gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka, familia babestea (familiako bizitza eta lana uztartzea), garapenerako lankidetzeta eta boluntarioritza, besteak beste.

Sailak atxikita izango ditu: Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea; Egailan SA, Pres-takuntza eta Enplegua Sustatzeko

Sozietate Publikoa; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

Osasun eta Kontsumo sailburu berri Javier Rafael Bengoa Renteriak du Euskal Herriko osasun-sare publikoa (Osakidetzeta) kudeatzeko ardura. Osasun Sailburuordetzeta Jesús María Fernández Díazen esku dago.

Osasun eta Kontsumo Sailari, besteak beste, honako egiteko hauek dagozkio: sanitataren plangintza eta antolamendua, osasun publikoa eta elikadura-higienea, eta farmazien eraketa.

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Iñaki Arriola López da sailaren arduraduna. Sailak hiru alor estrategiko batzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasun unibertsala garatzeko oso garrantzitsuak direnak, alegia: etxebizitza, herri-lanak eta garraioa.

María Paz Larrumbide Etxebizitza Sailburuordetzaren arduraduna da eta Ernesto José Gasco Gonzalo Garraio eta Herri Lan Sailburuordetzarena.

Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio, besteak beste, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari: irisgarritasunaren sustapena; etxebizitza; arkitektura; eraikuntza; iraunarazpena eta kalitatea eraikuntzan; trenbideak; eta lurretikako, itsasotikako, ibaie-tikako eta kabletikako garraioak.

Honako hauek atxikitzen zaizkio Sailari: Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (VISESA), Euskal Trenbide Sarea, Eusko Trenbideak eta Euskotren.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

María Isabel Celaá da sail garrantzitsu honen sailburu berria eta lau sailburuordetzek osatzen dute saila.

M^a Antonia Ozcariz Rubio Hezkuntza sailburuordea da, Pedro Luis Arias Ergueta Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren arduraduna da, David Urzainqui Lanbide Heziketakoa eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuorde izendatu berri dute eta, azkenik, María Soledad Esteban Galarza Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea da.

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

Idoia Mendiakueva Eusko Jaurlaritzako bozeramaile berriak Justizia eta Herri Administrazio Sailaren zuzendaritza hartu du.

Funtzio Publikoko Sailburuordetza Amaia Ortiz Cabezasen esku geratu da, Justizia Sailburuordetzaren ardura José Manuel Fínez Ratónek hartu du eta Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren ardura, berriz, Obdon Bilbao Corcuera. Sailak egiteko asko ditu, eta horien artean giza eskubi-deen sustapena dago.

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Carlos Aguirre Arana da Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun sailburuorde berria. Andrés Araujo de la Matak Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzaren ardura du.

Ekonomia eta Ogasun Sailari honako egiteko hauek dagozkio, besteak beste: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak zuzentzea, lantzea eta horien kudeaketa orokorra egitea, baita jarraipena eta kontrola ere; aurrekontuei buruzko programazioa; Ekonomia Ituna negoziatzea; Estatuarentzako kupoak eta lurralde historikoen ekarpenak; zergen administrazioa; eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak.

Sail horri atxikitzen zaizkio Euskal Estatistika Erakundea (EEE/IVE), Euskal Finantzen Erakundea eta Lehiaren Babeseko Euskal Auzitegia.

INDUSTRIA ETA BERRIKUNTZA SAILA

Bernabé Unda Barturen da Industria eta Berrikuntza sailburu berria.

SAILBURUORDEAK

Berrikuntza eta Energia sailburuordea - Pedro Hernández González.

Teknologia eta Industria Garapenerako sailburuordea - Francisco Javier Garmendia Martínez.

Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Industria eta Berrikuntza Sailari, besteak beste: teknologia-berrikuntza; euskal gizartean ezagutzaren eta informazioaren gizarte garatzea eta sustatzea; eta turismoa.

Sailari atxikitako erakunde eta sozietateak honako hauek dira:

- Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SA (SPRI).
- Basquetour, Euskal Turismoaren Agentzia.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

María del Pilar Unzué Pérez de Eulate da sailaren arduraduna.

SAILBURUORDEZAK

Ingurumen sailburuordea - Nieves Terán Vergara.

Lurralde Antolamendu eta Uren sailburuordea - Ignacio Achucarro Arruabarrena.

Elikagai Politika eta Industriako sailburuordea - José Luis Anda Fernández.

Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garpenerako sailburuordea - Juan Ramón Azkue Manterola.

HERRIZAINGO SAILA

Rodolfo Ares Taboada da Herrizaingo Sailaren buru, lagun dituela Herrizaingo sailburuorde Raúl Oscar Fernández eta Segurtasun sailburuorde Rafael Iturriaga Nieva.

KONPROMISOA

Inbestidura-hitzaldian Patxi López lehendakariak adierazi zuen laguntza emango ziela gutxitasunak dituzten pertsoneri eta, ildo horretan, ziurtatu zuen krisi-garaia bada ere "zuzendu nahi duen gobernuak ez dituela gizar-te-politikak murriztuko".

Bestalde, lehendakariak konpromiso pertsonala hartzen zuela berretsi zuen, bai eta jaurlaritzarena ere, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko eta oinarrizko eskubideak defendatzeko.

Lehendakariak behin baino gehiagotan adierazi du jendaurrean gutxitasunak dituzten pertsonen konpromiso pertsonala hartzen duela eta garbi esan du "gizarteak gure kolektiboarekin duen zor historikoa kitatuko duela". Halaber, gutxitasun-arrazoiengatik diskriminatzea, bere



hitzetan: "giza eskubideen urratze onartezina eta ulertezina da XXI. mendean, eta, hortaz, oztopo guztiei aurre egin behar diegu pertsona ororen berdintasunaren alde egiteko, edozein dela bakoitzaren egoera eta baldintza".

Patxi Lópezen gobernuak ildo horretan lan egiteko hartu duen konpromisoa betetzea espero dugu, eta berriz adierazi nahi dugu prest gaudela Jaurlaritzarekin zeharkako lankidetzan aritzeko proiektu, arau-garapen edo proposamen guztietan, baldin eta eskubideak bermatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan gutxitasunak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko bideratzen badira.

AENA

Elkarteren ale hau erabili nahi dugu AENAk, iaiztik, mugikortasuna urrituta duten pertsonentzat abian jarri duen laguntza-zerbitzuaren berri emateko. Zerbitzu horren berritasun nagusia elkarguneak dira, jarraian datorren azalpenean ikus daiteken bezala:



Aeropuertos Españoles

Servicio de asistencia a personas con movilidad reducida



Servicio de asistencia a personas con discapacidad o movilidad reducida en los aeropuertos españoles

En cumplimiento del Reglamento (CE) 1107/2006 del Parlamento Europeo, se pone en marcha a partir del 26 de julio de 2008 en todos los aeropuertos europeos un servicio de atención a los pasajeros con movilidad reducida. Esta medida comunitaria supone un gran avance social para las personas con discapacidad y por esta razón, se han dispuesto todos los recursos económicos, materiales y humanos necesarios para hacer posible que en todos los aeropuertos españoles se preste un servicio de calidad que garantice que todas las personas puedan disfrutar del transporte aéreo entre cualquier punto de la geografía europea, sea cual sea su discapacidad.

Diferentes discapacidades

- WCHC**
 Persona privada de cualquier movilidad y/o audición/visión. Deben ser acompañados a lo largo y traslado desde persona completa. Si el viaje dura más de tres horas, necesitan acompañante.
- WCHS**
 Pasajero que necesita ayuda entre la estación y la terminal y traslado para embarcar, desembarcar, dentro de la aeronave.
- WCHR**
 Pasajero que necesita ayuda durante el traslado entre la estación y la terminal, embarcadero para embarcar y desembarcar dentro de la aeronave.
- DEAF**
 Pasajero sordo.
- BLND**
 Pasajero con discapacidad visual.

¿Qué pasos debe seguir?

1

Solicítelo

Al hacer con él **tu reserva de avión** y **tu reserva de hotel** o **tu reserva de coche** o **tu reserva de tren** o **tu reserva de autobús**.

Adicionalmente, y de manera opcional, **visita periódicamente** para la asistencia en los aeropuertos españoles de la red de Aeris a través de teléfono: 952 424 724 o web: www.aeris.es



2

Ayuda al punto de encuentro

A la hora acordada. Si no es la **hora** alguna, como mínimo **dos horas** antes de la hora de salida programada*. Ayuda de su llegada por el **interlocutor** y espera allí la **recogida**. Puede ver la **ubicación** de los puntos de encuentro en nuestra web www.aeris.es



*Si no aparece este tiempo de anticipación, no podrá garantizarse la calidad del servicio ofrecido.



Facturación y embarque

Sea atendido y acompañado durante el proceso de facturación y en los controles de seguridad, **hacia su destino** en el avión, la **apartadura** con su equipaje y **aparte** personal.

Llegada a su destino
Le ayudamos a **desembarcar** y a **recoger** su equipaje. Después le **acompañamos** al punto de encuentro del aeropuerto que **usted** decide.



Al finalizar el servicio

Le **agradecemos** que **colabore** en su valoración al **personal** de la **gala**. Si algo no fuera de su **agrade** **coméntanoslo** a **atencionalcliente.es**

Para información

HAPN

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

2009ko maiatzaren 25ean, Gasteizko Udalak antolatuta, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia berraztertzeari buruzko informazio-jardunaldia izan zen Europa Kongresu Jauregian.



Plan Nagusia tresna juridiko konplexua da, eta plan horretan udalerriaren etorkizuna zuzenduko duten irizpide objektiboak ezarri dira hainbat sektoreri dagokienez, hala nola, sozialei, ekonomikoei... 2/2006 Legearen arabera, udalerririk izan behar du plan nagusi hori nahitaez eta, gainera, planak estatuko, autonomia-erkidegoko eta sektoreko legediak aintzat hartu eta bete behar ditu; hau da, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak ezarritako arauak, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak...

Hurrengo HAPN berraztertze prozesu guztia 2015rako amaitzea aurreikusita da.

Ordura arte egungo Plan Nagusia izango da indarrean. Bi fasetan onartu zen: 2001ean eta 2003an.

Bestalde, honako gai hauek landu ziren: jarraitu beharreko izapideak,

herritarren partaidetzarako sistema zehaztea, zer fasetan gauden, besteak beste.

Oraingo fasea

Hiriko hirigintzaren egoera kritikoki aztertzea, indarrean dagoen plana onarri hartuta. Jarduteko lehenetsunak kontseiluetan zehaztuko dira.

Oraindik ez zaio HAPNren aurrerapendokumentua idazteari ekin. **Aldez aurretiko azterketak** egitea erabaki da -fase hori aukerakoa da-, ahalik eta informazio gehien biltzeko, eta, ondoren, aipatutako dokumentua idazteko. Galdeketa-orri bat bidali zaie erakundeetara haien jarduerari buruz egoki iruditzen zaien informazioa eta kontuan hartu beharreko datuak emateko.

LAN-EGITASMOA:

- 1. fasea: Informazioa** biltzea: Udalaren azterketak eta lanak, lurraldeko gaindikotako azterketak eta udaleko administrazioak.
- 2. fasea:** Sektoreetako gaiak garatzea, gai horiek orokorrean eztabaidatzeko eta sakontzeko.
- 3. fasea:** Sektoreei buruzko jardunaldi teknikoak, proposatutako gaiak eztabaidatzeko eta mahai sektorial ezberdinen ondorioak biltzeko.
- 4. fasea:** Ondorioak eta aukerak proposatzea, aurrerapendokumenturako gomendioak eta neurriak proposatzea, hiri-antolamendurako tresnak eta estrategiak proposatzea, herritarren partaidetzarako programa proposatzea.

Kontseiluen parte-hartzea

Kontseiluen bidez iritzia eskatuko da.

Galdeketa-orriak beharrezkoak ziren lehen diagnostikoa egiteko eta orri horiek bidaltzeko epea maiatzaren **26tik ekainaren 18ra** izan zen. **eginaren eginez** elkarteak epearen barruan erantzun zuen eta adierazi zuen irisgarritasunaren alorreko irizpiderik ez zegoela HAPNan eta hurrengo planean irizpide horiek sartzea beharrezkoa zela.

Ondoren, Kontseiluen bidez, **Herritarren Partaidetzarako Plana** egingo da.

HAPNa izapidetzea:

- **Aldez aurretiko azterketak egitea:** Fase honetan administrazioen informazioa bilduko da, eta udalerrria gehiago eta hobeto ezagutzen saiatuko gara.
- **Diagnostikoa** egingo da, eta alderdi indartsuak eta ahuleziak zehaztuko dira. Diagnostikoa oinarri hartuta, hurrengo Plan Nagusian ezarri beharreko neurriak finkatuko dira.

- **Herritarren Partaidetzarako Sistema** definituko da (kontseiluen bidez).
- **Plangintzari buruzko aurrerapen-dokumentua.** Dokumentuan plangintzaren irizpideak eta irtenbideak xedatuko dira.
- **Jendaurrean azaltzea**, jendeak aurrerapen-dokumentuari buruz duen **iritzia** ezagutzeko.
- Ingurumen-inpaktua oro har ebaluatzea.
- Aurrerapen-dokumentuan eta ingurumen-inpaktuaren bilakaeran egin beharreko aldaketak erabaki ondoren, beste dokumentu bat prestatzea. Dokumentu horrek **hasierako onespena beharko du.**
- **Jendaurrean jarriko da dokumentuari buruzko alegazioak** aurkeztu ahal izateko.
- Osoko bilkuran **behin-behinean onestea**, aurkeztutako alegazioen arabera aldaketak egiteko aukera dagoela.
- Eusko Jaurlaritzako **Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorriko** zaio dokumentua onartu dezan. Alegazioak aurkezteko aukera egongo da.
- **Behin betiko onartuko da.**

BONO TAXI PROGRAMA

Bono-taxi programa berrikustea eskatu dute elkarteak eta Irisgarritasuna Sustatzeko Udal Kontseiluko beste talde batzuek.

Horiek horrela, ekainaren lauan, Kontseiluak egindako azken bilkuran, Bono-taxiaren egoerari buruzko txostena aurkeztu zen. Txosten horretan, hainbat argibide eskatu genituen; hala nola, egungo erabiltzaileen profilaren inguruko datu zehatzak, zenbateko ekonomikoak, eta programaren bilakaera 1989tik –programa urte horretan sartu zen indarrean-.

Marian Gutiérrez zinegotziari programaren egoeraren berri eman genion eta, besteak beste, azaldu genion, abian jarri zenetik ez duela aurrekontu-gehikuntzarik izan, erabiltzaileen kopuruak gora egin duela eta garapena ez dela berdina izan koadrila gutietan. Halaber, kudeaketa-batzorde bat sortzea eskatu dugu egoera horri heltzeko, egungo programa aztertzeko eta diagnostikatzeko, eta 2010erako BONO TAXI programa berri bat prestatzeko.

Adostutako hitzarmenaren arabera, Udalak eta Aldundiak programa beraztertzekeo proiektua egingo dute, eta proiektu hori Kontseiluaren hurrengo bilera aurkeztuko dute hiru hilabete barru; hala ere, alde aurretik proiektua taldeei bidali beharko zaie aztertu dezaten.

Adin-mugarik gabe

Hala ere, programa berriz ere zehaztu arte, elkarteak eskatu du egun Bonotaxia erabiltzen duten pertsona guztxi eta 65 urte betetzen dutenean programatik at gelditzen direnei epea automatikoki luzatzea, baldin eta adin hori izan baino lehen gutxitasuna aitortu dieten pertsonak badira (antzeko irizpidea erabiltzen da banakako laguntzak emateko deialdi publikoan).

Eginaren eginez ez da inoiz adinaren irizpidea programa honetan

erabiltzearen alde agertu, mugikortasunaren irizpidea erabiltzearen alde baizik. Elkarteak bere garaian presioa egin zuen eta mugikortasun-arazo larria duten pertsonen adina gutxienez 12 urteraino jaisteaz lortu zuen, bai eta gehienez ere 70 urteraino zabaltzea ere. Hala ere, adin hori betetzean ezin dute programaz baliatu. Beraz, egoera hori aldatzea espero dugu.



UDALEKO GIZARTE KONTSEILUA

TOKI ERAKUNDE TXIKIAK ETA HIRUGARREN OSPITALEA

Elkartea hautatu dute Irisgarritasuna Sustatzeko Udal Kontseilua ordezkatzeko GIZARTE KONTSEILUAN. Foro horretan gure bozeramailea denak parte hartu zuen ekainaren 16an egindako osoko bilkuran. Bilkura horretan bi gai landu zituzten:

- Toki Erakunde Txikiak
- Gure lurralde historikoan hirugarren ospitalearen premiari buruzko eztabaida.

Eginaren eginez elkarteak ekarpen zehatzak egin zituen Irisgarritasuna Sustatzeko Udal Kontseiluaren izenean. **Toki Erakunde Txikiei** dagokienez, proposatu dugu erabiltzen den garraioak irisgarritasuna bermatu behar duela, bai eta udalaren mende dauden herri horietako gizarte-zerbitzuak

dauden eraikinek ere: erraz iristeko modukoak izan behar dira jende guztiarentzat eta dagozkien lau urterako planak izan behar dituzte.

Hirugarren Ospitaleari dagokionez, **eginaren eginez** elkarteak gaur egungo ospitaleen egoeraren berri eman zuen. Gure erkidegoko ospitale bakar batek ere ez du bermatzen mugikortasun urriko pertsonak gelak baldintza berdinetan erabiltzen dituztenik, gela batzuek egokitutako bainugela ez baitute, zuetako batzuek jakinarazi diguzuenez. Hori dela eta, osasunarloan mugikortasun urriko pertsonen tratu duina izan dezaten eskatzen jarraituko dugu; ditugun instalazioak ikusirik, gaur egun tratu duin hori ez baita bermatzen.

Gizarte Lanari Buruzko Estatuko Kongresua



XI Congreso Estatal de Trabajo Social

Eginaren eginez-ek parte hartu du 2009ko maiatzaren 6, 7 eta 8an Zaragozan egindako GIZARTE LANARI BURUZKO ESTATUKO XI. KONGRESUAN.

Eginaren eginez gutxitasunen alorrean lan egiten duen gizarte-ekintzarako unitatea denez, GIZARTE LANARI BURUZKO ESTATUKO KONGRESUAN izan zen, diziplina horretako profesionalekin batera, profesionalen eginkizuna aztertzeko.

Azterketa horretan testuinguru metaforiko hau erabili da: gizarte-lanean bost zentzumenak erabiltzeko beharra (entzumena, dastamena, ukimena, ikusmena eta usaimena).

Era horretan, **ikusmenari** dagokionez, "diziplinarteko ikuspegiaren" alde egin dugu. Ikuspegi horren bidez, gizarte-langileek gai izan behar dute gutxitasuna jarduera-eremu askoren beharra duen egoera konplexua dela ikusteko. Jarduera-eremu horiek, besteak beste, honako hauek dira: gizarte-alorra, osasun-alorra, hezkuntza-alorra, lan-alorra, sustapen-alorra eta autonomia pertsonalaren alorra.

Ukimenari dagokionez, gizarte-langileok leuntasunaren eta harreman beroaren aldeko apustua egin dugu pertsonak tratatzean eta gizarte-laguntza ematean.

Entzumenari dagokionez, errealitatea entzun ahal izateko, gizarte-langileok

hitzaren balioa nabarmendu dugu, hau da, beste pertsonak entzuten jakin behar dugu baina baita isiltasunarekin jolasten ere, askotan isiltasunak laguntzen baitigu gauzak aztertzen eta ondorioz jarduten.

Gizarte-lanean **usaimenaren** zentzumena erabiltzen badugu, langileok egokiena zer den jakin behar dugu eta gai izan behar dugu premia berriak zeintzuk diren ezagutzeko. Horrela, gi-



Trinidad Jiménez Osasun eta Gizarte Politiken ministroa inaugurazio-ekitaldian, krisiaren aurkako iradokizunak jaso ondoren, batzarkide batzuekin argazkia ateratzen.



Osasunaren alorreko Gizarte-lanari buruzko mahai-inguru baten irudia.

zarteko kide guztien bizitza-kalitatea duina izango dela ziurta dezakegu.

Dastamenari dagokionez, lanbidean "gustu etiko ona" izan behar dugu, oinarrizko printzipio etiko unibertsalak aintzat hartuta, hala nola, erabiltzaileen erabakiekiko errespetua, konfidentziasuna eta ongizatea bilatzea. Halaber, posmodernitatearen "zapora berriak" ere kontuan hartu behar dira, esate baterako, pertsonen nortasuna, emozioak, profesionalaren zuhurtasuna eta balioak sustatzea. Azken finean, "besteen lekuan egoten jakin" behar dugu.



José Manuel Ramírezen tailerra, gizarte-langilea eta komunikatzaile bikaina. Gure elkartearen lana ezagutzera emateko argibideak eman zizkigun.

Azpitarratu da, orobat, garrantzitsua dela gizarte-langileok **zentsuz eta sentikortasunez** jokatzeari; era horretan honako hauei bide emanez: intuizioari, pertzepzioari, entzuteari, harmenari, empatiari...; baina, batez ere, gure lanbide-jardueraren sentimendu handiz gauzatu behar dugu eta zeregin horretan "giza faktorea" gailendu behar da, pertsonak baitira gure jardueraren bereizten duten elementua.

Gainera, Gizarte Ekintzaren eta Gizarte Lanaren alorreko ekimenen eta zerbitzuen erakustaldia antolatuta da aurreneko Kongresuan. Erakustaldi horretan, besteak beste, ikusi ahal izan dira erakusketak, gizarte-ekintzako produktuei eta zerbitzuei



Kongresu-jauregiaren sarreran jarritako postontzia, krisiari aurre egiteko proposamenak biltzeko.

buruzko informazio-panelak, material espezializatua, eta hainbat dibulgaziozko jarduerak.

Azkenik, kongresuari amaiera emateko, "GIZARTE LANA KRISIAREN AURKA" izeneko MANIFESTU bat onartu zen. Manifestu horretan jasotzen dira profesionalen, herritarren eta instituzioen atxikimenduak (hala nola, erakundeak, elkarteak, enpresak, komunikabideak eta abarren atxikimenduak). Manifestua honako helbide honetan kontsulta dezakezu:

<http://www.cgtrabajosocial.es/manifiesto/>

Abetxuko

Erakundeak Abetxukoko bizilagunen mobilizazioak eta salaketak babestu ditu. Herriko kaleen egoera dela eta, bizilagunak kezkatuta daude, bereziki, Ezki kalearen eta Txarrakea kalearen egoeragatik eta biak berrituta daude.

Maiatzaren 13an Auzokideen Batzarrean bertaratu ginen eta auzoa bisitatu genuen. Bisita horretan egiaztatu genuen kaleetan erreformak egin ondoren, elementu arriskutsuak jarri direla —ertzak dituzten pibotak—, erraz iristeko modukoa ez den espaloia eraiki dela, eta etxeetako sarbidea oztopatzen duen beste espaloi bat eraiki dela.

Horregatik, erakundeak honako hau adierazi zuen jendaurrean:

- Erreformarekin adosez gaudela azaltzen dugu, elementu arriskutsuak jarri baitira -esaterako, ertzak dituzten pibotak-, eta orain erraz iristeko modukoak ez diren herri-ibilbideak daudelako -espaloi estua-. Gainera, hori guztia Irigarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak xedatzen duenaren kontrakoa da eta kasu horretan, ez da ezarri herriaren beste leku batzuetan erabilitako irizpidea, hau da, oztoporik gabeko oinezkoentzako guneak jartzea (izan ere, elementu berriak jartzeak irigarritasun eza eragin dezake).
- Ekintzaren larritasuna salatzen dugu. Izan ere, erreformak erraz iristeko moduko guneak oztopatu dituelako, etxeetarako sarrera, esaterako. Espaloia zabaldu dute eta orain etxeko ateeak aurrez aurre maila bat izango dute, etxeetako sarrera eta espaloi berriaren artean sortu den aldearen ondorioz. Erreforma atzerapausoa da iristeko moduko guneen diseinu unibertsalari dagokionez, eta, gainera, mugitzeko urritasunak dituzten pertsonen eskubideak urratzen ditu.
- Ordezkatzen ditugun pertsonentzat, hau da, mugitzeko urritasunak dituzten herritarrentzat, oso garrantzitsua da herriko guneak erabat iristeko modukoak izatea.
- Abetxukoko bizilagunek, batez ere, Ezki eta Txarrakea kaleetan bizi diren herritarrek, gure elkartasuna eta babesa dute, arriskurik gabeko eta pertsona orok iristeko moduko bide publikoaren alde egiten baitute.
- Gasteizko Udalari eskatzen diogu Irigarritasuna Sustatzeko 20/97 Legea guztiz betetzea.



Piboteen argazkia.



Espaloia estua denez, irigarritasun eza.



Espaloi zabalenean dauden etxebizitzaren sarrera, erreforma baino lehen sarrera iristeko modukoak zela ikus daiteke.



Espaloi zabalenean dauden etxebizitzak, lehen iristeko modukoak ziren eta orain, ordea, ez; izan ere, tartea handia da.



Obrak egiten ari diren kalearen ikuspegi orokorra.



Herri-mobilizazioa.

VITORIA-GASTEIZKO IRISGARRITASUN PLANA

Ekainaren 4an egindako irisgarritasunari buruzko udal-kontseiluan, IKERSARE enpresak aurreko testuaren berrazterketa eta eguneraketa aurkeztu zuen; izan ere, azkenean testu hori onartu gabe geratu zen instituzioaren kaxoiren batean ahazturik.

Dokumentua 2010etik 2013ra bitarteko plana da eta elkarteei bidaliko zaie testua balora dezaten. Hasteko, eraikuntzari buruzko datuak falta dira. Halaber, agerian geratu da balia bide eskasia dagoela; horregatik, ezinezkoa da enpresaren aburuz egin beharreko lanak egitea. Horiek horrela, garrantzi gutxiko neurriak ditugu.

Mugikortasun Planarekin egon daitezkeen kontraesanak ere eman ziren ezagutzera bileran.

Azken batean, egoera mingarria hiriarrena, oraindik irisgarritasun planik ez baitu, eta mugitzeko urritasunak izutzen pertsonak sartzeko modukoak ez diren erabilera publikoko eraikinak ditu (hala nola, Etxanobe, Villasuso, udaletxea, azoka-eremuko komunak, besteak beste), eta hobetu beharreko hiriko ingurunea du (zoladurak, hiri-altzaria, beheraguneak, aparkatzeko lekuak, etab.).

DISKRIMINAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIKO ZERBITZU BATEAN

Foru Aldundiko Ez: Berdin zerbitzuaren irisgarritasun eza salatu zuen elkar-teak ekainaren 18an. Zerbitzu hori Alaba Jeneralaren kalean dago, 7. zenbakiko lehen solairuan.

Foru Aldundiaren lokal horretan maskulinotasunari eta sexismoari buruz hezteaz, aztertzeaz eta sentibilizatzeaz arduratzen dira. Hain zuzen, «lokalak ez du betetzen Irisgarritasuna Sustatzeko Legea eta, gainera, gizartearen eta komunitatearen parte-hartzeari dagokionez, gutxitasun fisikoak duten pertsonen oinarrizko eskubideak urratzen ditu».

Elkar-tearen iritziz, «administrazioak bermatutako zerbitzu batek ez du irekitzeko baimenik jaso behar, altxor publikoarekin, baldin eta erraz iristeko modukoa ez den lokal batean badago». «Onartezina iruditzen zaigu gizarte-ekintza xede duen instituzio batek ekimen hori bultzatzea, eta, gainera, kontuan hartu behar da Eginez bezalako taldeek etengabe azaltzen dutela zeintzuk diren bazterketa eragiten duten arrazoiak: oztopo fisikoak eta psikologikoak».

Diskriminazio bikoitza

Gutxitasuna duten emakumeek diskriminatuagoak daudela sentitzen dute. «Emakumeok beste behin eta bi arrazoiengatik sentitzen gara diskriminatuak: emakumeak garelako eta gutxitasunen bat dugulako; izan ere, mugikortasun urriko pertsonen de-bekatu egiten digute zerbitzu hori erabiltzea». Egindako salaketa publikoan gure bozeramaileak adierazi zue-nez, «Arabako Aldundiaren aurrean

ikusezin sentitzen gara eta ez gaitu aintzat hartzen».



Eginezen uste dugu "larria" dela irisgarritasun-baldintza egokiak betetzen ez dituzten erabilera publikoko zerbitzuak eskaintzea. Horregatik, lokal horretako zerbitzua beste leku batean kokatzea eskatu dugu, hain zuzen, «persona guztientzat erraz iristeko modukoa den gizarte-egoitza batean kokatzea eta, era berean, pertsona horiek jarduera guztietan parte hartzeko aukera izango dutela bermatzea».

Zerbitzua kudeatzen duten bi erakundeetako ordezkariekin (GHIA eta On: Giz) elkartu gara hainbat aldiz, bai eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritzarekin ere. Era horretan, espero dugu akordio batera iristea eta halako egoerarik ez gertatzea etorkizunean egin daitezkeen ekintzetan; hau da, irisgarritasunaren gaia ez ahaztea eta gure eskubideak ez urratzea eskatzen dugu.

GIDALIBURU BALIAGARRIAK

Aholkularitza juridikoko zerbitzua



Erakundeak argitalpen berria du: GIDALIBURU BALIAGARRIA. Gidaliburuak komunikazio-bide berri bat izan nahi du minusbaliotasunen alorrean.

GIDALIBURUA erakundearen eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren HITZARMENAREN ondorio da, eta, hain zuzen, hitzarmenak AHOLKULARITZA JURIDIKOko zerbitzu bat abian jartzea ahalbidetu du.

GIDALIBURUAREN helburua minusbaliotasunen arloko alderdi juridikoei buruz informazioa ematea eta laguntzea da; gainera, material espezifikoa da alor horretan.

Materiala argitaratzeari ekin zaio eta zure etxean jaso duzun GIDALIBURUA lehenengoa izan da, ONDARE BABESTUARI buruzkoa. Baina aurreraten dizugu hurrengo argitalpenek honako gai hauek jorratuko dituztela: Mendekotasunaren Legea, Irigarritasunaren Legea, Jabetza Horizontalaren Legea, etab.

Gidaliburu horiek baliagarriak izan daitezzen espero dugu, bai eta mugitzeko urritasunak dituzten pertsonen dagozkien eskubideak ezagutaraztea ere.

HIRIGINTZA

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko zuzendaritzarekin elkartu ginen ekainaren 23an. Hirian irekitzen diren lokalak eta establezimenduak direla eta, gure kezka azaldu genion gainditu ezinezko arkitektura-oztopoak dituztelako. Gaur egungo eskubi-deen babeserako markoa izanik, ez

dugu ulertzen egoera hori bizi behar izatea. Mahai gainean jarri genituen establezimenduetako batzuk honako hauek dira:

- ESTETIKA-ZENTROA, HEDEGILE KALEAN
- PARLAMENTO TABERNA.



EL KOSSO JATETXEA; Herrandarren Kalea, 2. Jatetxea obrak egiten ari zirenean, eta gerora utzitako bi eskailera-mailak.



ADOLFO DOMÍNGUEZ dendak, Errementari kalean.



CAIXA CATALUNYA

Sarrera nagusitik barrena sartzeko arkitektura-oztopoak; beste sarrera bat du alboan. Kutxazain automatikoa altuegi dago.



CAJA MADRID, Lakuan.



LAUREL TABERNA, Salburuan.

Emakumeentzako komuna egokitu da. Gizonezkoentzako komuna, ordea, ez da egokitu. Establezimendu horretako apaintzeko konketa ez da erabiltzeko eroso.



FRIDAY'S PROJECT DENDA.



AKURE TABERNA, Salburuan.

Akure taberna barruan egokitutako komuna ezin da erabili gerora jarritako armaru batengatik, armaru horrek biratzeko behar den espazioa oztopatzen duelako.



JOLAS-LEKUAK, Frantzia kalean.

Jolas-leku berriek beste sarrera bat dute, baina seinalatzatu gabe dago.

Fekooreko II. Jardunaldia

“Giza Eskubideak eta Gutxitasuna: Bizitza Independentea Hiritargoan”

Gutxitasunak dituzten pertsonen giza eskubideekiko errespetua eskatu zuten hainbat adituk eta erakundetako arduradunek Bilboko Euskalduna Jauregian, Fekoorek antolatutako jardunaldian. Urtero antolatzen du, eta aurtengo II. Jardunaldia Bilboko Euskalduna Jauregian izan da, maiatzaren 6an, honako izenburu honekin: Giza Eskubideak eta Gutxitasuna: bizitza independentea hiritargoan. Mintegi horretan 150 pertsona inguru bildu ziren eta gutxitasunak dituzten pertsonen kolektiboak giza eskubideak erabat erabili ahal izatea eskatu zuten. Hitzaldietan argi eta garbi geratu zen, enplegu arrunta, irisgarritasun unibertsala eta bizitza independentea lortzearen alde egin behar dutela lan erakundeek, gutxitasunak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta dagozkien eskubideak benetan erabili ahal izango dituztela bermatzeko.

Pertsona guztiek ez dituzte eskubide berberak, ez eta aukera berberak ere, eta, gainera, ezin dute modu berean horiez gozatu Euskadin, XXI. mendean bete-betean gaudela. Argi dago gutxitasunak dituzten pertsonak desabantaila-egoeran daudela oraindik ere, gainerako herritarren aldean, eta egunero nabaritzen dute hain oinarrikoak diren giza eskubideak kentzen zaizkiela; hala nola, haien ingurunean askatasunez mugitzea, non eta nola bizi nahi duten erabakitzea, lan duina lortzea, aisialdiaz gozatzea eta, hitz batez, bizitza independentea izatea eta gizartean biziki parte hartzea. Egoera latz horrek paradigma-aldaketa bat eskatzen du gutxitasunarekiko dugun ikuspuntuari dagokionez, pertsona horien oinarriko giza eskubideak errespetu daitezen.

Horrenbestez, maiatzaren 6an (asteazkena) Fekoorek Bilboko Euskalduna Jauregian antolatu zuen jardunaldian, “Giza Eskubideak eta Gutxitasuna: Bizitza Independentea Hiritargoan” izenburupean, mahaigaineratu zituzten zenbait ondorio jaso ditugu. Eztabaidarako eta hausnartarako foroa izan zen eta 200 pertsona inguruk parte hartu zuen. Oraingo honetan, jardunaldiak aukera eman digu kolektibo handi horrek gizartean parte har dezan sustatze aldera eta dagozkien eskubideak bermatze aldera —gizartean erabat parte hartzea eta bizi independentea izatea— egungo proposamenak eta jarduerak zein diren jakiteko eta aztertzeko.

Foro horretan parte hartu zuten Adela Rey Aneirok eta José Antonio Seoanek (A Coruñako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasleak biak); Víctor Bayarrik (Koine-Aequalitas Civites Fundazioaren presidentea eta Alter Civiteseko zuzendaria); Francisco Margallo Polok (Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioa); Jesús María Ordoñezek (Lanbide Enplegatzea Zerbitzuko zuzendaria); Lourdes Márquezek (ONCE Fundazioa); Elisa Salak (Kairoseko zuzendaria); eta José Manuel Finezek (Bilboko Lehen Auzialdiko 13. zenbakiko epaitegiko magistratua). Gizarteratzeari, bizitza independentea izateari eta gizartean biziki parte hartzeari dagokionez, gure eskubideek oinarri hauek izan behar dituzte: irisgarritasun unibertsala, enplegu arruntaren merkatuan kalitatezko lana lortzea eta autonomia pertsonala sustatzea. Izan ere, adituen iritzi, horiek dira gutxitasunak dituzten pertsonak autonomiaz bizitzeko eta norberak aukeratutako bizitza-proiektua aurrera

ateratzeko behar dituzten oinarrizko eskubideak.

Iñigo Lamarca arartekoak eta Juan Mari Aburto Gizarte Ekintzako diputatuak inauguratu zuten jardunaldia, José Antonio Pérez Feooreko presidentarekin batera. Arartekoak bere hitzaldian jardunaldiaren izenburua nabarmendu zuen, eta adierazi zuen giza eskubideak eta gutxitasuna batzen dituela, eta zera gaineratu zuen: "gutxitasunak dituzten pertsonak egun eskatzen dituzten eskubideak, hain zuzen, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotzen ditu, eta deklarazio unibertsal horren 60. urteurrena ospatu berri dugu". Halaber, gogorarazi zuen giza eskubide horiek erabiltzea eragozten duten muga eta oztopo asko daudela oraindik. Hori dela eta, esan zuen gizarteak eta erakundeek pentsamoldea aldatu behar dutela eta aurrerantzean beste ideia bat barneratu behar dugula, hau da, ez dagoela gizaki estandarrik, eta aniztasuna bizitzaren araua dela eta, beraz, printzipio hori errespetatu eta kontsekuenteak izan behar dugula.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko arduradunak ere bere hitzaldian aldaketa eskatu zuen, eta zera esan zuen: "pentsamolde-aldaketa, ideologia-iraultza beharrezkoa da, aniztasun funtzionala errespetatua eta baloratua izan dadin". Gaineratu zuen aldaketa hori "jada kalean dagoela, baina beharrezkoa dela arlo horretan erantzukizuna duten erakunde publikoek benetan sinestea", jarduerak norabide horretan bideratzeko eta kontzientzia sozial berri hori bultzatzen laguntzeko.

"Komunitateko Ingurunean Autonomia Pertsonala Sustatzeko Joera Berriak" izeneko hitzaldi markoa izan zen eztabaidaren muina. Bertan, gutxitasunarekiko dugun ikuspuntuaren bilakaera jorratu zen, gutxitasun hori giza eskubideen esparruan sartzea lortu den unera arte. Hori guztia Nazio Batuen Konbentzioan azaltzen da Espainiak 2007ko martxoan berretsi zuen eta joan den urteko maiatzaren



3an sartu zen indarrean Estatu osoan. Hain zuzen ere, XXI. mendean egin den giza eskubideei buruzko lehen konbentzioa izan da eta, gainera, interneteko eztabaidak oinarri hartuta sortu den lehen konbentzioa, nahiz eta gutxitasunak dituzten pertsonen alde mundu osoan lan egiten duten gizarte-taldeek egindako ekarpenekin osatu. Testu legal horrek egia zaugarri bat du oinarri: "gutxitasunak dituzten pertsonen giza eskubideen urratze sistematikoa eta arrunta, egungo legetan berme orokorrak izan arren". Konbentzioaren helburua da gutxitasunak dituzten pertsona guztiak beren giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak baldintza berberetan erabil ditzaten sustatzea, babestea eta bermatzea, haien duintasuna errespetatzeari dagokionez. Errealitatean duintasun horrek zera esan nahi du, "herritar orok eskueran dituen oinarrizko eskubideak erabiltzea, esaterako, nola bizi nahi dugun erabakitzeko eskubidea, sexu-askatasuna izateko eskubidea, seme-alabak izateko eskubidea, aisialdiaz gozatzeko eskubidea eta askatasunez mugitzeko eskubidea." Aditu guztiak bat etorri ziren giza eskubideak funtsezko baldintzak direla bizitza duina izateko eta, era berean, botere publikoei exiji daitezkeen eskubideak direla. Gainera, eskubide horiek eman beharrekoak dira, hau da, ez da nahikoa horiek ez direla urratuko ziurtatzea, botere publikoek eskubide horiek babesteko eta bermatzeko betebeharra ere badute, horretarako politika aktiboak abian jarrita.

Fekoor-ek kolektiboaren proposamenak aldarrikatu ditu Bizkaian bitzta independentea izateko eskubidea sustatzeko, Foru Aldundiak antolatutako **Gizarte-Ekintzako Topaketetan**

Bizkaiko Foru Aldundiak "Gizarte Ekintzako Topaketak" antolatu zituen Euskalduna Jauregian maiatzaren 22an, eta topaketa horietan arduradun publikoak eta gizarte-erakundeak bildu ziren, Mendekotasun Legea garatzen daramaten bi urteak aztertzeke. Programatutako hitzaldietan adituek bat etorri ziren legeak duen izaerari dagokionez; izan ere, bertan adierazi zuten "laguntza-izaera" nabaria duela legeak, baina ez duela ezinduen autonomia pertsonala bulztatzen lagundu.

Mendekotasun Legeak bitzta independentea sustatzearen helburua bidean utzi du, eta, hain zuzen, hori aldarrikatzen zuen araudiaren jatorrizko izenburuak. Bestalde, oso aurrerapauso garrantzitsua izan da Legean aurreikusitako laguntzen eta zerbitzuen sistemak eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzea kolektiboari, baina, legea indarrean sartu ondoren, taldeak zituen itxaropen asko bertan behera geratu dira. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak urtero antolatzen

ditu "Gizarte Ekintzako Topaketak", eta hamazortzigarren edizioa Bilboko Euskalduna Jauregian izan da, "Mendekotasuna: Legearen bi urteko ibilbidea eta beronen geroaren nondik norakoak" izenburupean. Horrenbestez, jarraian, bertan adierazi zituzten hainbat ondorio bildu ditugu. Ordezkarri publikoek, administrazioaren ordezkariek eta hainbat gizarte-erakundetako arduradunek aukera izan zuten Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeari buruzko Legea aztertzeke eta eztabaidatzeko, indarrean sartu eta bi urte igaro ondoren, eta, halaber, lege horrek Euskadin izango duen etorkizuneko garapena baloratu zuten. Topaketak Gizarte Ekintzako foru-diputatu Juan María Aburtok inauguratu zituen. Programatutako lehenengo mahai-inguruan, "Administrazioek egindako balantzea" izenburuarekin, honako hauek parte hartu zuten: Ricardo Barkalak, Bilboko Udalaren Gizarte Ongizateko zinegotziak; Carmen González Vázquezek, gizarte-lanetan diplomadunen eta gizarte-laguntzaileen Bizkaiko elkargo ofizialaren presidentek; eta Iñigo Pombo Ortiz de Artiñanok, Gizarteratze zuzendari orokorrak. Egitarauaren bigarren mahai-inguruan hainbat kolektiboren eskubideen alde lan egiten duten erakundeak bildu ziren "Herritarren hausnarketak" izeneko mahai-inguruan. Bertan parte hartu zuten María Jesús Goikoetxea Iturregik, Bizkaiko Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeko buruak; Pablo González Gutiérrezrek, GORABIDEko gerenteak; Sabin Ipiña Hormaetxeak, Nagusiko presidentek; eta Ana



Osuna Agudelok, Fekoor erakundeko programen arduradunak.

Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailearen ordezkariak "autonomia pertsonala sustatzearen etorkizuneko aukerak: Fekooren proposamenak" izenburuko hitzaldia eman zuen, eta mahai gainean jarri zituen, kritika eraikitzailea egiten zuela, erakundearen aburuz Bizkaian gutxitasun fisikoak dituzten pertsonen autonomia pertsonala sustatzeko eta bizitza independentea izateko eskubidearen giltzak direnak. Kolektibo garrantzitsu horrek nahitaez izan behar duen oinarritzko eskubidea da, bizitza-proiektu bat hauta eta gara dezaten gainerako herritarrek dituzten baldintza eta aukera berdinetan. Ana Osunak bere hitzaldiaren hasieran azaldu zuenez, kolektibo horrek "neurri desberdineko bidegabeberriak" pairatzen ditu; izan ere, "Euskadiko kolektiborik handiena da eta gaur egun laguntza-baliabide gutxiengatik dituen kolektiboetako bat da". Sistemaren bideragarritasunari eta iraunkortasunari dagokionez, Ana Osunak adierazi zuen funtsezkoa dela "Gizarte Segurantzaren alorreko eskumenei zuzenean lotzea, Ongizate Estatuaren beste laguntza batzuk bezala, hala nola, pentsioak". Ildo horretan, esan zuen kolektiboak adierazi izan duen baterako ordaintzaren aurka dagoela, Legearen izaerarekin kontraesanean dagoelako. Izan ere, "ezintasunak dituzten pertsonak bi aldiz ordaintzera zigortzen dira, hau da, zergak ordaintzeaz gain, zerbitzua bera ere ordaindu behar dute". Halaber, zehaztu zuen eredu hori guztiz onartezina dela, "erabiltzaileak diskriminatzen dituelako eta gutxitasun handiak dituzten pertsonak izategatik erantzule egiten dituelako". Bestalde, FEKOOREk zenbait arazo antzeman ditu, hain zuzen, ezintasun-mailaren balorazioa egin zaion pertsonak ezin izaten duelako beti erabili balorazio hori berrikusteko eskubidea. Horrez gain, adierazi du gutxitasun-maila eta -gradua egiaztatzen duen ziurtagiriarekin batera



balorazioaren txosten teknikoaren erantsia beharrezkoa dela —Gipuzkoan bezala—, balorazioaren aurka berraztertze-errekurtsoa jartzeko babesgabeziako egoerak gerta ez daitezten. Arretarako banakako programari dagokionez, Fekoorek adierazi du beharrezkoa dela pertsona hautatzeko arau-jasotako printzipioa bultzatzea, eta balorazioak egiten dituzten talde teknikoaren esku-hartzea kentzea. Pertsona bakoitzak bere arretarako programa antolatu behar du, norberaren erabakien eta etorkizunerako aukeren arabera.

Autonomia pertsonala

Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeari buruzko Legearen garapenari dagokionez, adierazi zuen ezinduen autonomia, bizi-kalitatea eta erabateko aukera-berdintasuna sustatzera bideratuta egon beharko lukeela. Baina ez da horrela gertatu,

mendekotasun-egoeran dauden pertsonak laguntzea zuen zereginen okertu baita. Fekooreko programen arduradunak nabarmendu zuenez, "herritartasuna izatea lo egitea, jatea, janztea eta norberaren gorputza garbi izatea baino haratago doa; ekintza horietara bakarrik mugatzen direla dirudien arren Legean xedatutako gizakion oinarriko jarduerak". Hortaz, gaineratu zuen autonomia pertsonalaren sustapena sendotu beharko litzatekeela, autonomia pertsonala eta bizitza independentea bultzatzen duten laguntza-produktuak emanaz (esaterako, laguntza teknikoak eta teknologikoak). Ildo horretan, Fekoorek adierazi du Bizkaian laguntzaile pertsonalaren irudia erregulatzeak eta ezartzeak lehenetasuna duela. Horrela, aniztasun funtzionala duten pertsonak, edozein dela mendekotasun-gradua eta -maila, beren eskubideak guztiz erabiltzen lagunduko dien pertsona izango dute, eta, era horretan, gainerako herritarrak bezala, kolektiboaren aukera-berdintasuna, bizi-kalitatea eta parte-hartze aktiboa bermatuko dira. Horretarako, beharrezkoa da laguntza pertsonalerako diru-laguntzak hobeto arautzea, mendekotasun handia duten pertsonak ez ezik beste batzuek ere jaso ahal izateko, betiere pertsona horiek lanean edo ikasten ari badira. Neurri horiez gain, familiei edo zaintzaileei arreta eta laguntza emateko premia azpimarratu zuen, kolektiboaren bizi-kalitatea ziurtatzeko funtsezkoa gaia baita. Gehienetan familia edo hurbileko pertsona-sarea arduratzen da mendekotasuna duen pertsona zaintzeaz, eta batez ere emakumeak. Hortaz, ekintza positiboko neurri bereziak hartzea ere nahitaezkoa da, beraziki estres-aldiak gainditzeko berariazko laguntza psikologikoa eta zaintzeko zereginari buruzkoprestakuntzatrinkoamateko. Fekooren ustez, Bizkaiko zerbitzuen katalogoak ahalbidetu egin beharko luke gutxitasun fisikoa duten pertsonak beren bizitza guztiz garatzea familia- eta komunitate-ingurunean, "eta laguntza-ereduetatik aldentzea,

behar-beharrezko laguntzak emanda, eta diru-laguntzak eta zerbitzuak uztartuta eta konbinatuta". Zerbitzuen katalogoari eta zerren-



dari buruzko proposamen zehatzei dagokienez, "etxebizitzarako eredu alternatiboak" landu dituzte, gutxitasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonen autonomia eta bizi-kalitatea sustatzeko. FEKOORek kalitatezko etxebizitzarako beste aukera baten aldeko apustua egiten du. Hain zuzen, aukera horren helburua da gutxitasun fisikoa duten pertsonentzat laguntza-baliabideak dituzten etxebizitzak eskaintzea, edozein dela pertsona horien mendekotasun-gradua eta -maila, gutxitasunak berak sortutako premiei eta arazoei erantzungo dien etxebizitza eta honako printzipio hauek oinarri izango dituen: norberaren askatasuna, bizitza independentea eta parte-hartze aktiboa. Halaber, Fekooreko arduradunak gaineratu zuen Bizkaiko lurralde historikoaren hainbat eskualdetan "trebakuntza-zentroen" sarea sortzea beharrezkoa dela, gutxitasun fisikoa duten pertsonen autonomia pertsonal handiagoa lortzea izanik zentro horien helburua, bizitza independentea garatzeko eta gizartearen biziki parte hartzeko. Halaber, jarduera soziokulturalerako eta aisialdiko jarduererako zentroen ereduak lantzea ere premiazkoa zela azpimarratu zuen.

Fekoorek

arkitektura-oztopoak kentzeko lege-ekimenak azaltzen ditu Legelarien Euskal Kontseiluaren jardunaldietan

Ekainaren 5ean, Fekooreko aholkulari juridiko Guillermo Treku Andonegik Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak arkitektura-oztopoak kentzeko abian jarri dituen lege-ekimenak azaldu zituen, Bilboko Abokatuen Elkargoan.

Legelarien Euskal Kontseiluak Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren egoitzan antolatu zituen jardunaldiak "Hiri Errentamenduen Legearen eta Jabetza Horizontalaren Legearen Erreforma" izenburupean, eta Fekoore gonbidatu zuen jardunaldi horietan parte hartzera. Mintegi horretan arreta handiz aztertu ziren aldaketa garrantzitsu horien xehetasunak, baina, bereziki, etxebizitzaren irisgarritasunari buruzko arazoak eta gaur egun udalek duten desjabetzeko aukera.

Fekoore aholkulari juridikoa lehena izan zen esku-hartzeen txandan, eta hitzaldian, hain zuzen, arkitektura-oztopoak kentzeko erakundeak abian jarritako legeko neurriak aztertu zituen.

Ildo horretan, Etxebizitzetako Irisgarritasuna Sustatzeko, Fekoorek Tokiko Ordenantza bat egin zuen 2008an,

egun oraindik dauden oztopoak kentze aldera, eta irisgarritasunaren alorrean etxebizitzetako berritze-lanak egiteko; esate baterako, arrapalak eta igogailuak jartzeko. Horretarako, lokalak jabari publikoko eremutat hartzea xedatzen du, baldin eta obra behar bezala justifikatuta badago eta beste irtenbide teknikorik ez balego. Ordenantza-eredu hori Estatuan aitzindaria da, eta Bilboko eta Donostiako udalek onartu dute, baita beste hainbat udalek ere. Proposamena EUDelera eraman da (Euskadiko Udalen Elkarte), ordenantza Euskal Autonomia Erkidegoko udalerririk guztietan ezar dadin bultzatzeko. Irisgarritasuna gizartean biziki parte hartzeko giltzetako bat da, baina baita oinarrizko askatasunak garatzeko, bizitza autonomoa izateko eskubidea bermatzeko eta pertsona ororen bizi-kalitatea ziurtatzeko ere. Gai horrek gizartean eragin handia du, eta gure udalerrietako auzi juridiko askoren sorburua da. Halaber, Auzitegi Gorenak jurisprudentzia sortu du ildo horretan, Bizkaiko eta Gipuzkoako bi bizilagunen elkartetan, FEKOOREko aholkulari juridikoak ordezkaturik, bi auzi ebazti ondoren. Goi Auzitegiaren epaien arabera, lonjak eta etxabeak lokala uztera behartuta daude igogailuak edo beste laguntza tekniko batzuk jartzeko, eta, gainera, lokal horiek ere erreformaren kostua ordaintzen lagundu behar dute.

Auzitegi Gorenak FEKOOREko Zerbitzu Juridikoaren arduradunaren alde epaitu zuen, eta auzi-prozesu horrek jurisprudentzia sortu zuen bizilagunen elkarte batean igogailua



jartzeko obren kostua nork ordaindu behar duen xedatzeari dagokionez.

Auzitegi Gorenak bizilagunen arteko gatazka bat ebatzi zuen Bizkaiko Ermua herrian. Epaia arabera, etxabeek eta merkataritza-lokalek kasu bakoitzean dagokien zati proportzionala ordaindu behar dute, hau da, higiezin batean igogailua jartzearen kostua.

Epaian, magistratuek ondorioztatu zuten "higiezinaren jabe guztiek, salbuespenik gabe, gastuak ordaintzen lagundu behar dute bakoitzari dagokion partaide-kuotaren arabera". Epaia horri esker, "hemendik aurrera ez da jabetza horizontalari buruzko Legearen interpretazio subjektiborik egingo. Lege horren arabera, pertsona ezindua edo hirurogeita hamar urte baino gehiagoko pertsona bakar bat egoitzan bizi bada, igogailua jartzea onartzeko gehiengo soila besterik ez da behar"; hala azaldu zuen Guillermo Trekuk. Kontua da, azken urteotan, Lehen Auzialdiko hainbat epaitegik erabaki kontraesankorrak hartu dituztela gai horren inguruan, bai eta Espainiako probintzia-azuzitegi batzuetan ere.

"Auzitegi Goreneko epaileek azkenean aintzat hartu dute legearen interpretazioak unean uneko gizarte-errealitatearen arabera eta arkitektura-oztopoak kentzearen aldekoa izan behar duela". Horiek horrela, epaia adierazi dute "botere publikoek gero eta gehiago babesten dituztela ezintasunak dituzten pertsonen eskubideak". Halaber, adierazi dute igogailua funtsezko elementua dela eraikina erabili ahal izateko; gainera, gerora egoitzaren jabe guztiei, salbuespenik gabe, onura ekartzen die, jabe horiek higiezinaren balioa oro har handitu dela ikusten baitute. Argudio hori oinarri harturik, azaldu dute "neurritz kanpokoa izango litzatekeela higiezinaren jabe guztiak kostua ordaintzen laguntzera behartuta ez baleude". Epaia azken atalean hartarazten dute erabakiak "jurisprudenzia-doktrina" sortzen duela.



Zorrak

Era berean, Auzitegi Gorenak beste bizilagunen elkarte baten aldeko epaia eman du; hain zuzen, Fekooren aholkulari juridikoak ordezkatzeko bizilagunen elkarte hori. Epaia arabera, "ondasun higiezin baten jabeek esaterako, etxabe edo lonja baten jabeek onartu behar dute haien lokalak laga beharreko espazioak direla irisgarritasun-obrak egin eta arkitektura-oztopoak kentzeko, obrak egin behar diren kasuetan". Goi Auzitegiko magistratuak esandakoaren arabera, "jabetza etengabe okupatzea" da zorra, eta hori dela kontuan hartuta, Auzitegi Gorenak ematen duen lehenengo epaia da".

Era berean, epaiak gaineratu zuen jabe guztiek lagundu behar dutela lonjaren jabeari kalte-ordaina ordaintzen, obra-garaian bere lokala erabili izanagatik, eta gehiengo soila besterik ez dela behar irisgarritasun-erreforma egiteko akordioa onartzeko. Trekuk azaltzen duenez, Auzitegi Gorenak hartutako erabaki horiek garrantzi handia dute; hain zuzen, honela zioen: «etxabeen eta merkataritza-lokalen jabeek ez dute auzibideko egintza bidezko lege-babesik izango, akordioen aurka egin nahi duten kasuetan, haien zatia ordaindu nahi ez dutelako edo lokala utzi nahi ez dutelako».

EMAKUMEZKO PARLAMENTARI TIBETARRAREN BISITA



Joan den ekainaren 26an gonbidatu berezi bat izan genuen Elkarturen egoitzan, Nawang Lhamo irakasle eta legebiltzarkide tibetar erbesteratua (Dharamsala hirira, India). Berarekin batera, Gipuzkoako "Atisha" kultura-elkarte tibetarreko zenbait kide ere etorri ziren, eta guztiok elkar hartuta lan-bilera bat egin genuen, errealitate ezberdinei buruz mintzatu eta gure bizipenak trukatzeko. Hainbat gai jorrratu genituen, eskuragarritasunarena, bereziki; izan ere, oso zaila da mendi-inguruetan bideak edo errepideak egitea, eta oinarrizkoa, bestalde, gizartean txertatzera bidean lehen urratsa egiteko zein, desgaitasunak dituzten pertsonak herritartasunetik baztertu gabe, horiek herrietara iritsi ahal izateko. Aztergai izan genuen beste gaietako bat oinarrizko tresna lagungarriak edukitzeko beharra izan zen, gurpildun aukiak, esaterako,

han ez baitute horrelakorik. Horrez gainera, Nawang Lhamok adierazi zigun topaketa hura oso aberasgarria zela beretzat, India edo Tibetekin alderatuz, Gipuzkoak arlo honetan dituen aurrerapenak ezagutzeko aukera ematen ziolako. Bilera bukatzean, Nawang Lhamori itzulera on bat opatzeaz gainera, konpromisoa hartu genuen Elkartu eta Tibetean artean elkarlan-aukerak aztertzeke.

Emakume tibetar honen egotaldiak helburu bikoitza zuen: batetik, Indiako iparraldean eta tibetar gizartean, oro har, desgaitasunak dituzten pertsonak bizi duten errealitatearen berri ematea; eta, bestetik, berak zuzentzen duen desgaitasunak dituzten haur eta gazteen zentrorako laguntzak lortzea.

Word Cafea Gizarte Zerbitzuen

Aspaldi ez dela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak gogoe-ta-aldi bat ireki, eta eztabaida piztu du gure probintziarako nahi dugun gizarte-zerbitzuen ereduaren inguruan. Testuinguru horretan, joan den ekainaren 18an Word Cafea bat antolatatu zen Kutxaespazioko Newton Aretoan, alegia, gai jakin bati buruz mintzatu, eztabaidatu eta iritziak trukatzeko hainbat pertsonen arteko topaketa bat. Orduko hartan, Word Cafeak gipuzkoarrok nahi dugun

gizarte-zerbitzuen eredia hartu zuen mintzagai. Foroaren metodologia zenbait galderari erantzutean oinarritzen zen: gizarte-zerbitzuen euskal legeak izaera unibertsala ematen die zerbitzu horiei, baina, **ba al daude horretarako beharrezkoak diren baldintzak?, bideragarria al da legea epe laburrean?** Bestalde, gizarte-zerbitzuak administrazioak bermatzen dituela kontuan hartuta, **nola kudeatu beharko liraketeke?, nola finantzatu beharko liraketeke gizarte-zerbitzuak?, zeintzuk dira**

zure ustez beharrizan premiazkoenak?, zein beharrizan berri sor daiteke zure aburuz?, zein izan beharko litzateke gizartearen betekizuna?, eta, gizartearen barruan, zein hirugarren sektorearena?

Besteak beste, hainbat elkarte, administrazioko teknikari, politiko eta enpresarik hartu zuen parte Word Cafean. Elkartu ere han izan zen, kritikotasunez eta ekarpenak egiteko gogoz, izan ere, gure irizmena eta gizarte-zerbitzu eraginkorrei buruzko jarrera gutxienena baita. Guk gizarte-zerbitzuak ez pribatizatzearen alde

egiten dugu, eta arlo horri dagokion gastua igotzearen alde, gure ustez publikoa eta unibertsala den zerbitzu baten finantzazioa ia osotasunean hartu beharko bailuke administrazioak bere gain, eta ez zerbitzuaren hartzailleak; horixe bera agintzen du, gainera, iazko abenduaren 5ean onartutako gizarte-zerbitzuen 12/2008 Legeak. Nolanahi ere, federaziokook lanean jarraituko dugu pertsona guztien bizikalitatea hobetzearen aldeko gure aldarrikapenak gauzatu daitezten.

Aparkaleku-txartelak faltsutzea

2009ko otsailaren 25ean onartu zuen Irungo Udalak ***Desgaitasuna daukaten pertsonentzako aparkaleku-txartela eta erreserba bereziak arautzen dituen udal ordenantza***. Izan ere, Eusko Legebiltzarren irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, mugikortasuna urrituta daukaten pertsonak bakarrik erabiltzeko aparkalekuak gordetzea behartzen ditu botere publikoak. Aipatu ordenantzako ***arau-hausteei eta autoen aparkatze-erregimenari buruzko kapituluek zigorrak aipatzen dituzte***, ondoko legeetan oinarrituta: 339/1990 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 2koa, Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duena; 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazio Araudi Orokorra onartzen duena; eta Zirkulazioari buruzko udal-ordenantza. Horrela, baimenik ez duen inork autoa desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako aparkalekuetan uzten badu, aparkatze desegokiari dagokion zigorra ezarriko zaio eta garabiak autoa eramango du.

Helburu horretarako, ***baimenik gabekotzat joko dira*** bai aparkaleku-txartelik ez duten autoak bai eta ***aparkaleku-txartel baliogabea dutenak*** ere.

Aipatutako araudiari jarraiki, ***7 hilabeteke espetxe-zigorra eta 1080 euroko isuna*** ezarri diote pertsona bati, Iruenen, mugikortasuna urrituta duten pertsonentzako aparkaleku-txartela aldatu eta faltsutzeagatik. Itxuraz zigorra gehiegizkoa bada ere, ELKARTUkook uste dugu egiaztagiri ofizial eta publiko bat gaizki erabili, aldatu eta faltsutzea ekintza zigorgarria dela. Horregatik, federaziotik aparkaleku-txartela ongi erabiltzearen alde egin nahi dugu, horrela bakarrik edukiko baitute gure eskabideek zilegitasun osoa. Jakina da irregulartasun asko gertatzen direla senitartekoen edo autoan desgaitasuna duen pertsonarekin joan gabe doazen aldetik, eta txartela gehiegi eta gaizki erabiltzen dela. Bada gure kolektiboak berak izan behar du egoera hori salatzen lehena.

Ezinduen Kontseilua: Mendekotasun Legea

Joan den ekainaren 9an, Desgaitasunak dituzten Pertsonen Kontseilua bildu zen berriro ere Elkarturen egoitzan. Bileran horretatik igorri zaizkigun argibideetatik aipatzekoak dira Mendekotasunaren Balorazioaren eskaera-egoerei dagozkien datuak,

batetik, eta Lege horrek eskaintzen dituen diru-sariak lortzeko jarraitu beharreko urratsak, bestetik.

Jarraian zerrendatuta daude urtarrilaren 16ko datarekin garrantzitsuenak ziren datuak:

Mendekotasun Prestazio Ekonomikoen eskaerak (2009ko urtarrilaren 16ko datuak)
Solicitudes de Prestaciones Económicas de la Dependencia (datos a 16 de enero de 2009)

Prestazio mota Tipo prestación	Eskaren egoera Situaciones de solicitudes			Importa Altak /Altas
	Eskaren Solicitudes	Eskaren % %Solicitantes	Tramitatuak Tramitadas	
PEAP	877	11,00	779	371.335
PECE	6.851	85,94	5.666	1.422.485
PEVS	244	3,06	223	70.354
TOTALES	7.972	100	6.668	1.864.174
			83,64% (nº 7.972)	

PEAP - prestación económica por atención personal
PECE - " " por cuidado en el entorno familiar
PEVS - " " vinculada al servicio

Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua

Joan den ekainaren 15ean Bizikletaren Kontseilura joateko aukera izan genuen beste behin. Kontseilu honek, dakizuenez, izaera aholku-emailea du eta eskumenak dauka Gipuzkoan. For gisa egituratzen da, eta bere eginkizun nagusiak Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia lantzea eta legeen aurreproiektuetarako proposamenak egitea dira, besteak beste. Kontseiluaren beste alderdi garrantzitsuenetako bat bizikletaren erabilerari eta bizikletak ordezkatzeko dituen balioei lotutako errepide-heziketa, aholkularitza, orientazioa eta sentiberatzeari dagokiona da, bai eta oinezkoen, txirindularien eta gidarien arteko elkarbizitzari ere. Izan ere, aipatzekoa da bizikletek beren esparru berezietatik kanpo eta, batez ere, oinezkoak eta bizikletak elkartzen diren

guneetan, sortzen duen arriskua. Arriskua diogunean mugikortasuna urrituta daukaten pertsonen ari gara, bereziki; gainera, bizikletak aparkatzen diren tokiek zuzenean eragiten gaituzte: sarbide estuak, arrantpatako eskudelak... Horrek hirietan zehar modu autonomo eta seguruan mugitzea zailtzen digu.

Erabilera normalizatua lortzeko asko falta da oraindik, udalek eskaintzen duten bizikleten zerrendan ez baita mugikortasuna urrituta duten pertsonentzako inongo moldaketarik ageri, ez eta zerbitzu horiek modu normalizatuan gozatzen lagunduko diguten beste osagaririk ere. Bidegorri batzuek, adibidez, ez dute inongo seinalerik, ez eta zolatze egokirik, beste hamaika arazo-eren artean.